



KIROL ARGAZKIEN

LEHIAKETA



GIPUZKOAKO ARGAZKILARI ELKARTEA
SOCIEDAD FOTOGRAFICA DE GIPUZKOA

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Kultura, Turismo, Gazteria
eta Kirol Departamentua



ORAIN
GIPUZKOA

LEHIAKETAREN DIANRRIAK

ANTOLATZAILEA

Kirolgi Fundazioa, Gipuzkoako Argazkilarien Elkartearekin lankidetzan.

GAIA

//OROKORRA//

"Gipuzkoako kirola" bere arlo guztietan.

//ESPEZIFIKOIA//

"Emakumezkoen Kirola"

LEHIAKIDEAK

18 urtetik gorako afizionatuak edo profesionalak.

LANAK

Egile batek gehienez ere lau argazki aurkez ditzake atal bakoitzeko.

ATALAK

Bi atal izango ditu lehiaketak:
A / Kolore bakarreko papera.
B / Koloretako papera.

AURKEZPENA

Neurri hauetakoak izan behar dute argazki-paperek: gehienez 30x40 zentimetrokoak, eta gutxienez 18x24 zentimetrokoak. Irudiaren neurria librea izango da, betiere neurri horien barruan. Oinarritzko ukituak soilik onartuko dira, hau da, kontrastea, disdira edo kolorea doitzea. Ez da inolaz ere onartuko jatorrizko irudian ez zegoen elementurik sartzea. Horregatik, epaimahaiak badauka, hala balegokio, jatorrizko fitxategia eskatzea.

Inolako euskarriren gainean jarri gabe eta gasturik ordaindu beharrik gabe bidaliko dira lanak helbide honetara: **Kirolgi Fundazioa, Kirol Etxea, Anoeta pasealekua 5 - 20014 Donostia/San Sebastián.**

Kartazalaren gainean hau jarri behar da: "Kirolgi Fundazioaren XV. Kirol Argazki Lehiaketa".

LANEN IDENTIFIKAZIOA

Argazki bakoitzaren atzean bakar-bakarrik izenburua edo letoa jarriko da. Partaide bakoitzak kaxa/kartazal/bilgarri bat aurkeztuko du, barruan argazkiak eta kartazal bakar bat dituen; barruko kartazalaren kanpoaldean aurkeztutako argazki guztien izenburuak edo letoak idatziko dira, eta barruan lehiakidearen datuak: izen-deiturak, NA, helbide osoa, telefono zenbakia eta e-mail.

ARGAZKIEN JABETZA ETA ERABILERA

Epaia argitaratuta, irabazleek Kirolgi Fundazioa bidaliko dute argazki saridunaren erresoluzio handiko kopia digitala. Kirolgi Fundazioa egingo da saritutako argazkien jabe, bai eta kopiak egin eta hedatzearen jabe ere. Kirolgi Fundazioari utzitako eskubideak harenak bakarrik izango dira, ez beste inorenak. Eskubide horiek uztearen truke egileak ezingo du lehiaketako saria beste ordainsaririk eskatu. Halere, egilearen izena agertuko da argazkian, egilearen eskubideei buruzko indarrean dagoen araudiaren arabera.

Hautatu bai baina saririk jaso ez duten eta Kirolgi Fundazioarentzat publizitatea egite aldera interesgarri diren argazkien egileek Kirolgi Fundazioari baimena emango diote beren lanak edozein lekutan argitaratzeko, bi urteko epean, lehiaketako epaia ematen den egunetik kontatzen hasita. Baimen hori ematearen truke egileak 60 euroko ordainsaria jasoko du argazki bakoitzeko.

Lehiakideen ardura izango da beste inoren esku ez uztea eskubideak, eta irudi eskubideetatik letorkeen erreklamazio oro.

SARIAK

Atal bakoitzean hiruna sari emango dira tematika orokorrean, eta "GIPUZKOA ORAIN" sari bat (kolore bakarra edo koloretakoa) "Emakumezkoen Kirola" gai espezifikorearen barnean.

A/ Kolore bakarreko paperean aurkeztutako argazkiak

1. saria: 500€ eta Gipuzkoako Argazkilarien Elkartearen garaikurra.
2. saria: 250€ eta Gipuzkoako Argazkilarien Elkartearen garaikurra.
3. saria: 150€ eta Gipuzkoako Argazkilarien Elkartearen garaikurra.

B/ Koloretako paperean aurkeztutako argazkiak

1. saria: 500€ eta Kirolgi Fundazioa garaikurra.
2. saria: 250€ eta Kirolgi Fundazioa garaikurra.
3. saria: 150€ eta Kirolgi Fundazioa garaikurra.

C/ "GIPUZKOA ORAIN" saria ("Emakumezkoen Kirola")

Saria: 500 € eta Gipuzkoako Foru Aldundia garaikurra.

Kirolgi Fundazioak eskubidea izango du edozein sari eman gabe uzteko. Sari bakarra jaso ahal izango dute lehiakideek.

BATZORDE HAUTATUAILEA ETA EPAIMAHAIA

Kirolgi Fundazioa eta Gipuzkoako Argazkilari Elkartearen ordezkariak izango dira epaile. Epaimahaiaren deliberazioak isilpean gordeko dira eta epaia aldaezina izango da.

EGUTEGIA

Lanak aurkezteko epea: 2016ko azaroaren 18ko 14:00ak.

Epaimahaiaren epaia: 2016ko azaroak 28.

Sariak: Gipuzkoako Foru Aldundia 2016ko abenduaren 15ean arratsaldeko 19:00etan Irungo FICOBAN antolatuko duen Kirol Galan banatuko dira.

Hautatutako zenbait argazkiren erakusketa: 2016ko abenduaren 12tik 2017ko urtarrilaren 5era, Gipuzkoako Argazkilarien Elkartearen.

Lanak itzultzea: Saritu gabeko argazkiak aurkeztu diren leku berean jaso beharko dira, erakusketa amaitu ondoren, 2017eko urtarrilaren 23ean hasi eta otsailaren 24 baino lehen. Epe hori igarota, jaso gabeko argazkiak Kirolgi Fundazioaren esku geratuko dira nahi duen bezala erabiltzeko.

ARGAZKIAK GALTZEA EDO LAPURTZEA

Fundazioak hitz ematen du argazkiak ondo zainduko dituela, baina ez da haren ardura izango bidean edo erakusketa egiten den bitartean galtzen edo hondatzen badira, edo lapurtzen badituzte. Partaideek hartuko dute beren gain aseguru.

ONARRIAK INTERPRETATZEA ETA AURREIKUSI GABEKO GORABEHERAK EBAZTEA

Kirolgi Fundazioak erabakiko du oinarri hauetan jaso gabeko gorabeheren aurrean zer egin. Lehiaketara aurkeztu diren guztiak onartu beharko dituzte oinarri hauek.



GIPUZKOAKO ARGAZKILARI ELKARTEA
SOCIEDAD FOTOGRAFICA DE GIPUZKOA



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Kultura, Turismo, Gazteria
eta Kirol Departamentua



ORAIN
GIPUZKOA